GAURKO FILMEAK

# Zerrenda kaskarra animatzen saiatuko da Willie osaba

ANE MUÑOZ

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 10.00 | TVE2 | ○○ | EL MILAGRO DE LAS CAMPANAS | 1948 | Irving Pichel | 114 m. |
| 11.25 | TVE1 | ○○ | LA CIUDAD BAJO LA LLUVIA | 1970 | Irwing Allen | 89 m. |
| 15.30 | A3 | ○○○○ | TERROR EN LA AUTOPISTA 91 | 1989 | Jerry Jameson | - |
| 15.35 | ETB2 | ○○ | ULTIMOS DIAS DE UN ASESINO | 1983 | Bill Persky | 96 m. |
| 17.30 | TVE2 | ○○ | SOSPECHOSO DE ASESINATO | 1969 | Michael O´Herlihy | 101 m. |
| 18.35 | ETB2 | ○○○ | TIO WILLIE, ENSUEÑO DE MI VIDA | 1949 | Joseph H.Lewis | 89 m. |
| 20.55 | F2 | ○○○ | RIVE DROITE, RIVE GAUCHE | 1984 | Phillippe Labro | 100 m. |
| 21.45 | T5 | ○○ | LA LEY DE LAS CALLES | 1992 | G.Stanford Brown | 90 m. |
| 22.00 | A3 | ○ | SEVILLA CONECTION | 1992 | Jose Ramon Larraz | - |
| 22.00 | ETB2 | ○ | AMANECER ROJO | 1984 | John Cronwell | 100 m. |
| 22.00 | C+(e) | ○○○○ | JUEGO DE LAGRIMAS | 1992 | Neil Jordan | 106 m. |
| 22.00 | TVE2 | ○○ | GUERRAS DE DIVORCIO | 1981 | Donald wrye | 95 m. |
| 01.00 | TVE2 | ○○ | EL OKAPI | - | Merce Vilaret | - |
| 02.05 | T5 | ○○ | EL PODEROSO HOWARD HUGHES | 1979 | W.A. Graham | 118 m. |
| 02.30 | A3 | ○○○ | PATRICK | 1977 | Richard Franklin | - |
| 04.42 | C+(e) | ○ | HABLA MUDITA | 1973 | M.Gutierrez Aragon | 82 m. |
| 05.30 | A3 | ○ | PELUSA | 1960 | Javier Soto | - |

○ *TXARRA* ○○ *ESKASA* ○○○ *BALEKOA* ○○○○ *ONA* ○○○○○ *BIKAINA*

Merce Vilaret zuzendariaren lanari gainbegiratua ematen dion zikloaren barnean 'El Okapi' izeneko drama eskainiko du bigarren kate espainiar estatalak. Istorioa berez eder eta hunkigarri samarra bada ere azken emaitza, nire ustez, ez da onegia.

Patrick Swayzek protagonizaturiko 'Amanecer rojo' kaskarra, azkenik, Euskal Telebistaren gaurko eskaintza pobreari dagokion drama belikoa da. Hasieratik amaierara biolentziaz josiriko txapuza besterik ez dela esango dut beldurrik gabe.

## TIO WILLIE, ENSUEÑO DE MI VIDA

**(Return of October)**

**Zuzendaria:** Joseph H. Lewis. **Aktoreak:** Glenn Ford, Terry Moore, James Gleason.

Zaldi lasteketa batean apustua egin eta zuen guztia galdu ondoren, bihotzekoak jota hilko da Willie berezia. Bitartean, gure emakumezko gazte protagonista oso gustuko duen 'Octubre' deituriko zaldia bereganatzen saiatuko da.

Poliziakoren jeneroan benetan kontuan hartzekoak diren zenbait klasiko zoragarriren arduradunak berak, Joseph H. Lewis zuzendariak ('So dark the night', 1946) alegia, 40ko hamarkadaren amaieran egin zuen horren ona ez deritzodan komedia hau. Nire ustez, Joseph H.Lewis jaunaren filmografia interesgarrian zozoenetarikoa dela ere esango dut bide batez. Izan ere, aktore talde erakargarri batetik kanpo interes gutxiko elementuak baitira oro har bertan topatuko ditugunak.

Dena den, ikuslea entretenitzeko moduko zinta dela ez dut dudarik, alaia baita, eta istorioak berez ezer berririk esaten ez badigu ere, zuzen samar kontatzen jakin baitu Lewis zuzendariak.

## RIVE DROITE, RIVE GAUCHE

**(Rive droite, rive gauche)**

**Zuzendaria:** Philippe Labro. **Aktoreak:** Gerard Depardieu, Nathalie Baye, Carole Bouquet, Bernard Fresson.

Azken egunotako Mundialak direla eta ez direla, telebista frantziarrak gaurko astearte honetarako prestatu duen filme bakarra, nire ustez, nahiko interesgarria den komedia dramatiko frantziarra dugu.

Bertan, korrupzio kasu garrantzitsu bat salatzen arriskatuko den abokatu ausarta da protagonista; eta rol horretan azaltzen den aktorea, Gerard Depardieu arrakastatsua izango da. Aktore ospetsu honen alboan topatuko ditugunen lana ere kontuan hartzekoa dela esan behar dut.

Umorezko tonurik falta ez duen istorioa erritmo alaiaz eramaten jakin du gidoiaz ere arduratu den Labro zinemagile frantziarrak, duela hamar bat urte estreinatu eta, herrialde mailan besterik ez bada ere, nahiko arrakastatsua bilakatu den zinta honetan.

Frantsesa ulertzeko arazorik ez duen ikusleari une atsegina igaroko duela ziurtatuko diot.

## EL MILAGRO DE LAS CAMPANAS

**(The miracle of the bells)**

**Zuzendaria:** Irving Pichel. **Aktoreak:** Fred MacMurray, Alida Valli, Frank Sinatra, Lee J. Cobb.

Erlijiotasuna ezinbestekoa den mundu itxi batean garatuko den istorio zozo baina zuzen samarra da Pichel zuzendariak goizerako prestatu diguna. Bertan, hil berri den lagunaren gorpua lurperatzen duten bitartean, beroren bizitzari gainbegiratua emango dio Bill protagonistak, *flashback*-aren bitartez, hildako hollywoodtar izarra nor zen erakutsiz ikusleari. Aktore talde bitxi eta erakargarria da, nire ustez, Ben Hecht gidoigile ezagunaren partaidetzaz gain filmeak duen elementu nabarmengarriena. Esan bezala istorioa aspergarri samarra bihurtzen da berehala, bertan ingenuitatea nagusi izanik.

ETB1



TENISA
Winbledon
Txapelketa 15.40

TVE1



PRET A PORTER
Telekomedia 21.30

F3



1944, LA FRANCE LIBEREE
Dokumentala 22.40

ETB2



EN EL PAIS DE LOS GOLOKS
Dokumentala 00.40

**M6**

06.00: **Boulevard des clips.** 07.00: **M6 express.** 07.05: **Contact 6 manager.** 07.10: **Les matins de Christophe.** 09.05: **M6 boutique.** 11.00: **Campus show.** 11.30: **Lassie.** 12.00: **Papa Schultz.** 12.35: **La petite maison dans la prairie.** 13.30: **Drôles de dames.** 14.20: **Musikado.** 17.00: **Multitop.** 17.30: **Classe mannequin.** 18.00: **Un flic dans la mafia.** 19.00: **Pour l'amour du risque.** 19.54: **6 minutes.** 20.00: **Madame est servie.** 20.35: **Le mardi c'et permis.** 20.50: **Lois et Clark.** 22.40: **Enquête a Chinatown.** 00.20: **6 minutes.** 00.30: **Spécial capital: les grandes vacances.** 03.00: **Culture pub.** 03.25: **Jazz 6.** 04.20: **Cargo de nuit.** 05.15: **Fax'o.**

**CANAL+**

07.00: **CBS evening news.** 07.20: **Le journal de l'emploi.** 07.25: **Canaille peluche.** 07.55: **Ça cartoon.** 08.10: **Télés dimanche.** 09.00: **3000 scénarios contre un virus.** 09.05: **Le journal du cinéma.** 09.10: **Parfum de meurtre.** 10.40: **Flash info.** 10.45: **Surprises.** 11.05: **'Fire birds'. Filmea.** 12.30: **La grande famille.** 13.35: **Le journal du cinéma du quartier libre.** 13.40: **'Papa est en voyage d'affaires'. Filmea.** 15.50: **24 heures.** 16.50: **'Antonia et Jane'. Filmea.** 18.45: **Nulle part ailleurs.** 20.30: **Le journal du cinéma.** 20.35: **'Boomerang'. Filmea.** 22.30: **'Storyville'. Filmea.** 00.20: **'Uncle buck'. Filmea.** 02.00: **Histoire du Jazz en France.** 02.50: **Surprises.**

**TELE 5**

06.45: **Novedades increibles.** 07.15: **Entre hoy y mañana.** 07.45: **Los periodicos.** 08.00: **Caramelo.** 08.05: **La tele es tuya, colega.** 10.45: **Webster.** 11.15: **Grandullón.** 11.45: **Apartamento para tres.** 12.15: **Hotel.** 13.15: **La ruleta de la fortuna.** 14.00. **Veredicto.** 14.30: **Albistegia.** 15.00: **Veredicto.** 15.30: **Sensación de vivir.** 16.30: **Melrose Place.** 17.30: **Remington Steele.** 18.30: **Dejate querer.** 19.30: **Su media naranja.** 20.30: **Albistegia.** 21.00: **Telecupón.** 21.10: **Karaoke.** 21.45: **La ley de las calles'. Filmea.** 23.45: **Misterio para tres.** 00.40: **Las pesadillas de Freddy.** 01.35: **Entre hoy y mañana.** 02.05: **'El poderoso Howard Hugues'. Filmea.** 04.10: **Novedades increibles.** 05.10: **Los dias y ls noches de Molly Dood.**

**ANTENA 3**

07.30: **Albisteak.** 08.00: **Tras 3 tris.** 11.00: **Punky Brester.** 11.30: **Somos diez.** 12.00: **Colmillo blanco.** 14.30: **El principe de Bel Air.** 15.00: **Albistegia.** 15.30: **'Terror en la autopista 91'. Filmea.** 17.30: **Curvas peligrosas.** 18.30: **Salvados por la campana.** 19.00: **Paradise Beach.** 19.30: **Los vigilantes de la playa.** 20.30: **Las historias de amor de Isabel Gemio.** 21.00: **Albistegia.** 21.30: **Farmacia de guardia.** 22.00: **'Sevilla connection'. Filmea.** 00.00: **Hermida y compañia.** 01.30: **Albistegia.** 02.00: **Linea America.** 02.30: **'Patrick'.** 04.00: **Televenta.** 05.30: **'Pelusa'. Filmea.**

**CANAL+**

08.05: **ABC world news.** 08.30: **Blinky Bill.** 08.55: **Videominuto.** 09.52: **Albisteak.** 10.00: **'El cuervo'. Filmea.** 11.26: **'Las noches salvajes'. Filmea.** 13.35: **Los 40 principales.** 14.00: **Albisteak.** 14.05: **El club de medianoche.** 14.30: **Kate y Allie.** 15.00: **'Antonia y Jane'. Filmea.** 16.10: **'La piel del diamante'. Filmea.** 17.43: **'Después del sueño'. Filmea.** 19.35: **Grimmy.** 20.00: **Albisteak.** 20.05: **Los 40 principales.** 20.30: **Sigue soñando.** 21.00: **Primos lejanos.** 21.30: **Albistegia.** 21.57: **Primer plano.** 22.00: **'Juego de lágrimas'. Filmea.** 23.49: **'Elígeme'. Filmea.** 01.34: **Wagner-en 'El ocaso de los dioses'.** 03.00: **'L ataberna fantástica'. Filmea.** 04.42: **'Habla mudita'. Filmea.**

**arte**

19.00: **Hale et Pace.** 19.30: **Le monde des années 50.** 20.25: **5 minutes pour l'Europe.** 20.30: **8 1/2 journal.** 20.40: **Transit.** 21.40: **'Dom Juan.** 21.45: **Dom Juan ou le festin de Pierre.** 23.20: **Dom Juan de Molière.**

## IRRATIA

| | | | |
|---|---|---|---|
| Arrate Irratia. | FM 87.7 | Gure Irratia. | FM 106.6 |
| Bizkaia Irratia. | FM 102.6 | Irulegi Irratia. | FM 91.08 |
| Egin Irratia. | FM 103.0 / 102.0 | Segura Irratia. | FM 89.2 |
| Euskadi Irratia. | OM 1.161 | Xiberoko Botza. | FM 88.8 |
| Euskalerria Irratia. | FM 91.4 | Xorroxin Irratia. | FM 107.5 |
| Gipuzkoa Herri Irrat. | FM 99.8 | Iruñeko Herri Irratia. | FM 87.6 |

**Euskadi Irratia.** 'Goiz Kronika' albistegiaren ondoren Arantxa Arzak gidatzen duen 'Eguteran' magazina eskainiko da. Hamabi t'erdietan 'Maite, Maite, Maitea' irratinobelaren zortzigarren atala entzuteko aukera izango duzue. 'Herriz herri' tartean Orio herria izango da protagonista nagusia. 13.00etan 'Goizak Gaur' albistegiaren txanda iritsiko da. Ane Albisuk eta Nekane Peñagarikanok udaran zehar 'Ez da giro' saioa aurkeztuko dizuete ordu bi t'erdietatik laurak bitartean.

**Segura Irratia.** Goizeko bederatzietan 'Kalejira' saioa. Eta hamarrak inguru horretan, 'Gure denda' irratsaioan, egunerokoa tarteez gain, Mila Aierberen 'Ilargiarekin mokoka' astrologia saioa entzuteko aukera izango duzue. Tolosako alde zaharreko etxeak berritu egin nahi dituzte eta horren inguruan sortutako gorabeheren berri emango du bertako bizilagun batek.

**Arrate Irratia.** Goizeko bederatzietan meza eskainiko da. Hamaiketan sukaldaria iritsiko da bazkarirako plater goxoren bat egiteko beharrezko diren osagaiak eta eman beharreko pausuak argituz. Mexiko aldeko musika gogoko duzuela? Zortean zaudete, arratsaldeko ordu bata t'erdietatik aurrera herrialde hartako musika entzuteko aukera izango duzue eta.